BAGILLA
14
Igandea
Bilbao, 1936

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ilez
Bilbao'atazkua ... 11,25 » »
Idazki-itunmena ... 62,00 » urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 » »

Beldayen itunduba

XIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.322 zenbakija

Gayak

ARABIAR BATEN AZKEN -NAYA

Arabiar agura zar bat, iltamuban zala, bere azken-naya agertu biar ebala-ta, olantxe mintzatu zan:

"Ene ondasun gustijak kutxa baten jari dodaz. Eta ondasun gusti areik, gixartian zoruntsubena dala agertuten dabenarentzat ixango dira."

Azken-naya agertu ebanian, iltamuban aurkitzen zan arabiara, il-egin zan.

Aren azken-guramena, baña, bixirik geratu zan-eta, eri-ziar edatubaz, jauregi aro aldintsu ta lander-etxe txiruentaraño eldu zan, eta kutxako ondasun-zorua zala ta etzala, buruka -muruka itzalak sortu.

Eta buruka ta muruka, ez ta bai, ta au, ori ta bestia, arabiar zarak agertu eban azken-nayaren anotsa, bakaldun -jauregiraño eldu zan.

Eta bakalduna, be, kutxa aretan sartuta eguan ondasun-zoruak igituta, bera eskuratzeko gertetan asi zan, gixartian bera baxen zoruntsurik iñor be etzala esaten.

Eta bakaldunaren esana, beste gustijak agertu ebenen ganetik jari zan. Beraz, kutxeaz jabetu zana be, bera ixan zan.

Eta kutxea eskubetan artu eban. Kutxa-estalkija uratu be bai, bata baruban idoro ebazanak begiratu ta azterutten asi be.

Kutxa-baruban idoro ebazanak, bariz, onixek ixan ziran: ari bat, leyar -zat batzuk, eta idazki bat.

Bakaldunak idazkijari eldu eutsan, eta bertan, auxe irakuri:

"Gixartian zoruntsubena b a z i ñ a, txindi-biarik etzenduke ixango."

Arabiar agure zarak bere azken -naya agertuteko idatzi eban idazki arek, ogasun-biia kutxaratu zan bakaldun txindi-zaliari, bere-gura aundirik ezeutsan emon. Irakatsi edera bai, oratiño, gixarte osuan zoruntsubena dala-ta agertuten dan gixakijak, beste ogasun-biarik eztau ixan be-ta.

Ogasun-biia juan zan bakaldun txindi-zaliarentzat ez-eze, geuretzat, be, ikaspide edera da au. Eta ikaspide edera dalako imiñi be egin dogu.

OKERKERIJAK

Orain egun batzuk zirala, or zorijoneko Gaztela "katolikean" jazo zan jazokun baragari bat bide zala, bariak bare egin ixan doguz.

Gaztela "katolika" oretan jazoko eztanik eztago egon be.

Eta jazokun onetako buru nausijak, "gente de orden" dirala esaten daben oreik ixan dira, Bilbao'ko "La Gaceta del Norte" "katoliku" - eredu agertu gura leuken izparingijak, done ixena imiñita altara nausijan jariko leukezan "derecha" oretakuak: karlatarak -eta, irakurle.

"Gente de orden" edo diralako oneik, txapel-okeren adizkide aundijak doguz. Eta txapel-okerai dautsen lotsa ta matasunaren (?), txapel-okerak getutia otu yake. Edo argijago esanda: txapel -okerak paltzipiketia".

Otu, ta egin be bai. Txapel-okerak txapel-oker "paltzipikeu" dabez, ba.

Txapel - okerak egiten dabiltzanak "okerkerijak" egitia aritzekua be ezta -ta, okerkerijori zuzen-antzo aurera eruateko, janzkijak-janzki josi dabez, eta txapelak-txapel okertu...

Oker dabiianari gauza zuzenik urten be ezin leikijo-ta, "gente de orden" orei be, aurerantz jaurti biar dabela -ta gertau eben daunbadeak, atzetik urten ixan dautse, ta euren ames gustijak alperik galduta imiñi.

Euren asmo gustijak oker urten dautsela, esan gura dogu: "paltzipikaziñua" eruan gura ixan daben lekuraño eruan orduko, azeri-lakirijuan jausi dirala... ¡A gixagaxuak! Oker-okerka ibilten asi dira: euren neuriko "txapel -okerak" egiten.

Eta laregi okertu ixan diralako, okereko bidia artu dabe, ta "paltzipikadoriak" jausten diran lapur-lexara jausi.

¿Eta orain? Ixil-mixilka ta neuri -meuri barik josi ixan dabezan janzkijakaz eta txapel-okerakaz, ¿orain zer egiteko...?

Oneik eskotar "katoliku"-eredu bakanok asmauko eztauskubenik eztago egon be.

Egun baten, jeltzaliak "masoyak" zirala asmau eben, eta idazti-bidez iragari. Eta nasai-nasai geratu ziran..

Geruago, bariz, matxinarak gintzazala esan eben, txeren-kumeak eta beste zeozer geyago gintzazala be bai...

Eurak, ostera, doniak, "gente de orden"...

Euren esanak, baña, euren egiñenak guzurtetan dabez. Euren egiñenak erakusten dauskubenez, ba, "paltzipikadore" batzuk dira: euren eriketa loya aldeztutiaren, uskurtzea bera be, "paltzipikeu" gura ixaten dabenak; euren eriketa zikiña bide dala, txapel-okerakañokuak ixunduten dabiltzanak.

Beraz, irakurle, eskotarik ikusten dozunetan, begi-zur ibili, ta bada-ezpadan be, "atearen"-egin, oreik "paltzipikadoriok", txerena gotzon janztzita erakusteko be, gai dirala dirudije -ta.

¡EURIJA, TA EURIJA!

Aurtengo udea baxen euritsurik eztogu iñoz ezagutu ixan.

Gu baño zaraguak be bardin diñue.

Atzo, Andoni deunaren jaya, iñoz ezagutu ixan dogun egunik loriñena ixan zan.

Ori zala-ta-edo, Urkiola'ra be, iñozko gitxijen juan zirala entzun dogu.

Urkiola'k, aurten areyo asko ixan be ixan dauz: batetik, euri-loriña. Eta bestetik, tximist-purdijen opora.

Areyo bi oreik aurka dirala, ¿nor Urkiola'ratuteko?

Antxiña, bai. Antxiña, tximist-purdirik ezeguanian eta bagiia'n 13'garenian uda-erako eguraldi berua ta argija ixaten zan aldijan, Andoni deunari eraspenezko ikertalditxuba egiteko tximist-purdi biarik etzan ixaten. Orduban oñez juaten ziran, eta oñez etxietara biurtu be.

Orduko zinismena ta gaurkua, baña, orduko udea ta gaurkuaren antzekuak dira: areik, benetakuak. Orainguak, ostera, guzurezkuak.

Aurtengo udea otza da, ba, kistar -zinismenaren antzekua.

URIBITARTE'TAR IBON.

Euzkotar Umien Aldez

APALKERIAK

"Bulara zulatu ziran ezbearak bere estenaz. Biotz zaurituak odol goria ixuri zuan. Eta nolzpait lore-gañean lurundu zan.". — PAUL VERLAINE. "Bon chevalier masqué..."

Danok dakigun bezela ume danak ez dira berdin burutsu ez gutxiago izan oi. Bai dira umeak oso buru gutxikoak, adimen laburekoak. Abek, gaxoak eurekin dute lanik asko.

Baña guraso batzuek, onelako umeai asiera ona emateko erabili bear dan era alde batera utzita erarik txarenak erabili oi dituzte.

Umeak ez du erurik tentela edo buru gutxikoa izateaz. Umeari, jayotzatik buru argia izan aren adimena geroago iiundu lezakio gaxo bat igaro dualako, edo bilduf izu aundi batean bere burua ikusi dualako (uretara erorita ia itoan ateratako ume bat, edo beribil batek azpian arapatutako ume bat eta abar).

Umea berez buru argiduna izan aren tenteldu leike baita ere erori eta buruan nai bizkar ezurean kolpe txar bat artu dualako. Gure gorputzak eta gure gogoak alkarekin dituzten artu emanak eta zer ikusiak estuak, asko eta eskutuak baitira!

Ume batzuek tentelak edo adimen gutxikoak izatea beriz, gurasoen erua ere izan leike, zegaitiak emen ezin azaldu nezazke baña. Iñoiz-ez-iñoiz ez da umea bere adimen iiunaren erudun, bere naimenetik at daudelako bere buru urijaren zegait ugariak.

Ala ere guraso batzuek ume tentelak euren gogoz edo eurak naita tentelak bai'litzakez bezela artzen dituzte. Eta oretarakotxe bai ez dagoala eskubiderik!

Adibide bat ipintzera noa. Amabi urtedun mutiltxo bat bialtzen du bere aitak idazki bat zertifikatzera. Mutiia lelo xamara da, au batetik, eta bestetik aitak ez dizkio bear bezela azaldu idazkia zertifikatzeko zerzeladak.

Mutiltxoa juaten da koriora eta ate -atean aitak besteetan baño zerbait geyago zer-edozer esan ete dion edo oroitzen da. Baña gauza garbirik ez zayo oroitzen. Bere adimenaren gaiak uriak noski. Eskuetan daukan eskutitzari ondo begiratu dion aren ez dio gauza beririk igeri eta "Ai, bai! ez galtzeko, eta kontuz eramateko esango ziran" (beti kontuz juateko, kontuz etortzeko, kontuz esateko, kontuz entzuteko, bai dio aitak) pentzatzen du mutiltxoak eta iru txakureko ingitxoa erosi ta ezaririk botatzen du idazkia bidayen kutxatiiara.

Etxeratzean aitak agiria eskatzen dio.

—Nun dek agiria?

—Zer agiri? Neri ez dirate agririk eman.

—Zer egin diok ba eskutitzari?

—Ba, besteetan bezela korioko kutxatiiara bota.

Au entzutean azitzen da aita "Aitiaren eta semiaren! —Iri esan baño len ere pentzatu bear nian nik, ik ez iakala gauza onik egingo. I, ez aiz ba besteak bezelakoa ta. Au ere ezbeara dek, eta ez makala ere gañera, seme bat euki eta bera iñosua! Ken akit auretik, mutil, ken akit, ik oraindik iñosokeri aundiagoak ere egingo dituk eta. Ire burutik lelokeriak eta tentelkeriak izan ezik, beste gauzik ezin erten litekek ba ta."

Onelako gauzak umeari esatea txit gaizki dago. Umea benetan erdi tentela ba'da beriz gaizkiago oraindik, min geyago emango diolako, eta bere erua ez dalako erdi leloa edo lelo osoa izatea.

ARITOKIETA.

Mendizaleak

Ernio'ko galurean, Eramu-igandez, izan zan batzararen ondorengoa dogu Gipuzko Mendizale-Batza'ren jaiotza. Gipuzkoar ordezkariak—Batzoki geienetakoak beintzat—oso gogo onez artu zuten Batza au. Abertzaletasunarentzat onuragaria litzakela-ta, ora, guziok, onuaren biia. Aberi maitasuna euzko-biotzetan kilimakatzale dagerkigu. Maitasuna da gure ikuritz mardulena; maitasunaz atea guziak iriki oi -dira, ta, guazen bada maitasunez gurera...

卐 卐 卐

Baña, gurea. zer ote mendizale, edo izateko asmoz aizen abertzale...? Mendiratzea, ta mendiratzeakin abendari letorzkiken onei bakarik begiratuta "Mendizale,,'en egin-beara betea jotzen al dek?

Ibiialdi-leiak eratu, estalpeak zutitu, iturlak txukundu, bideak markatu, kutxak ipiñi eta abar, "Mendizale,,'en bizia osatzen dutela ustetan bizi al aiz..?

Araudiari erepatuta arazoiaren jabe aiz ezpairik gabe; gabe, oitatu ditugun gauzok, bide bat gure erpiñera iristeko besterik ez dirala jakin bearean aiz...

Gure asmoak zer diran ba, galdetu al dek?

Ez dek erantzun ereza; ezta gaitza ere. Asmoak, ta, oraingoz, asmoz bakarik bizi ba gaituk, etoriko dek egi izango dirau garaia—, ugari dituk, belar gaiztoa gure baratzean lez; bañan, abertzale, askoz piñagoak; jatorak benez.

Lanera baño len—lan ageria alegia—gure sendia ezagutu bear degu, edo gutxienez bere beri izan beintzat.

Orain arteraño senidien beri, legezkoa, gutxi ditugu; beste askorena ba 'degu, entzundakoa, baño ez legez; au da: Gipuzko-Mendizale-Batzara sartu nai dutenen txartela izenpetzea, ta izenpeak erakartzen dizkion egin bearen jabetza ta lanerako griña. Ez bai dira, garaiok, alperkerean nagitzeko. Estatutoa etxera bidean degula, areago.

Beraz, abertzale, abertzale izena zer esan nai dun dakiken euskotara. Lana egin bear diagu. Izkuntza ta Eri-yakintza, mendizaletasunaren aitzakiz oraingoz. Gero... gero, ikusiko diagu zer komeni dan Aberiaren aintzartako.

ORPO.

Elebitza, irazkintza ta abertzaletasuna

Egoki izango da aldi onetan gai au erabiltzea. Aldi bakoitzak bere gai kizuna izan oi dau, eta gure aldi onek, agiri danez, eginkizun asko ikusi dauskuz. Araudia laister bayetsiko ei-dabe. Eta, yakiña, Araudiak aranduko erakariko dauskuz. Ikastola-arazoak, gure aburuz, eztira kaskarenak izango. Elebitzari bideak edegiteko zer egin ete dogu? Batez be, baña, euzkerea ... tu ete dogu erdereagaz batean ikastoletan sartzeko lez? Erdel-eritatik ... ume erdeldunak zein urtetaik asi bear dabe euzkerea ikasten? Azken itaun oneri bitara erantzungo dautse: irazkintza maitaleak onelan ... dauskue: erdel-erietan berandurarte —12-13 urte— eztabela euzkerarik ... ten asi bear ume erdeldunak. Aberi ta Aberiaren izkuntza maitalek ... bestela esango dauskue: Aberiaren ume guztiak txikitandikan asi bear bela aberi-izkuntzea —euzkerea— ikasten.

Ona ba yakitunak eta abertzaleak, batzuk bestien aurka, garantzi ... diko arazo oni buruz. Zean erabagi?

ELEBITZA TA IRAZKINTZA.—Irazkintzak, emon dauskun ... emoteko, ziorik asko dauka. Yakitun asko ibili dira, or-emen, elebitzak ... gokozan arazoak arakatu ta ikasten. Emon daben erantzuna, beraz, ... ditsu baten erantzuna, yakitunarena baño. Yakitun oreik ikasi dabenak ... aundiak sortzen ei dira umearen kaltez ikastoletan ume txikienari be ... ren elea irakastetik. Ez ei dau ikasleak berandurarte ikasi bear ikasten ... kuntzarik. Bestela, ikaskizunetan atzeratu egiten ei da izkuntza ... ondo eztakialako eta erdizka ezagutzen dauzan izkuntza biak be nastu ... ten dauzalako. Izkuntzak nastu ezkero, bariz, adimena be nastu edo ... bear. Ikastea gatxa izaten ei da, adimena astiroegi zabaltzen ei da ... roko indarak alper-alperik emoten ei dira.

Zer egin beraz? Erdel-umeai euzkerarik irakatsi ez amairu urte ... artean?

¡Arazoak egokigo, yakintsu arauz erabagiteko da irazkintzai ... tzak diñuanari yaraiki, erazago bigurtzen dira azikera-arazoak; ... yoriagoak artzen dira; geyago ta sakonago irakasten da; umeak ... alaitsuago ikasten dabe.

Ezta, baña, irazkintza, ikastola-arazoetan nagusi bakar. Lenengo ... tzat, benetako irazkintzak ezin ezer agindu lei uskurtz-aginduen ... ñera, irazkintzak emoten dauzan legeak aundizka egokiak izan aren, ... emen, gaur edo biar, arazo onetan edo aretan, ba-litzake ain egoki ... tea be. Are geyago: irazkintza legeak baztartzetik kaltea sortu lei, ... irazkintza lege orei men egitetik kalte aundiagoa sortzen ba-yaku?

ADIBIDEZ.—Ba'dakigu zertan dagoan euzkerea. Abertzale ... ratu ezkero, min egiten dausku biotzean euzkerearen bera bearak. ... rearen bera bearak. Euzkerea, beraz, yaso egin gura dogu, indartu, ... edertu ta zabaldu, bere usaña Euzkadi ziar edatu ta bareyatu daiten. ... kerearen usaña Euzkadi guztira zabaldu artean eztogu taketxik egingo. ... irazkintzeari be laguntza eske gayatozko, laguntza bearean bai-gagoz.

Oar, baña: Euzkadi'ko umeak amairu urte bete artean erderaz ... egiten ba-dabe, euzkerarik ikasten ezpadabe, amairu urte bete ezkero ... dun geratuko dira, eztabe euzkerarik ikasiko. Orixe bera jazoten da ... gatik bestela ainbesteko negarak? Zertan negar egin umeak euzkerarik ... takiela-ta? Eri bateko umeak erdeldun diranean —gurasoak euzkeldun ... aren— eri aretan euzkerea il agiñean dagoala esaten dogu. Zergatik? ... umea danean ikasten ezpadau euzkerea, gerora eztaualako ikasiko. ... kigu gazte ta gizon askok ikasi dabela euzkeraz itz egiten. Ikasi? Oar ... geyenak ozta-ozta itz egiten dabe, autualdietan gai gitxi erabili al ... dabe. Yakiña, eliztiak eztau izkuntzarik irakasten, izkuntzaren arauak ... Eta araukaz ezta "itz egiten", itz egiten yakin ezkero, "itz ondo egiten" ... ño. Oretarako itz egiten yakin bear da. Eta umea da itz egiteko ... Umearoan ikasten da itz egiten, umearoak emoten dau eraztasuna, eta ... lotsea kendu be.

Gañera, amairu urte bete ezkero, Euzkadi'ko umea erdel-giroan ... te) buruz bera sartuta geratzen da. Ikaskizunak erderaz egin bear, ... erderaz egiten dautse erdeldun asko diralako eta ardura gitxikoak ... irakasleak erdeldunak izango dira, bear ba-da ikastera be erdel-erira ... izango da: ora dana erderaz egin beara. Eta erdel-giro oretan ... dagoanak euzkerea ikasi bayetz? Erdel-erekan aratinik yausi dan ... euzkerea ikasi? Oretarako borondate sendoa bear da, eta, zoritxarez, ... tien borondatea argala da. Batek edo bestek egin legike, geyen-geyenak ...

ELEBITZA TA ABERTZALETASUNA.—Etxako, beraz, atsegin ... irazkintzaren legea, emen beintzat. Irazkintzaren legea bete ezkero, ... riak galtzen urten bear. Eta eztago Aberia, Euzkadi beintzat, galtzen ... teteko.

Euzkereari eusteko indar guztiak eztira geyegi. Eragozpenik eztogu ... iñola be. Euzkerea umeai sartu bear dautsegu. Umeak galdu ezkero, ... dia gora-bera, euzkerearenak egin dau. Irazkintzari kalte egingo dauzu ... la? Irazkintza bidea da. Arazo onetan bide luzea. Eta bide ori luzatzen ... dago galtzoririk aundiena euzkerearentzat.

Umeak eragozpenen bat izango dabela? Dana dala, euzkerea zabaldu ... tean izango da. Eta zer da garantzi aundiagokoa, euzkerearen erlotzea ... ume batzuen atzerapen txiki bat?

Beste itaun bat: Orañarteko ume euzkeldunak be, eztabe ikasi bear ... erderea txikitatik? Orek be atzerapena erakariko eban. Eta atzerapena ... zari dauskun atzerapena gogo onez eroan ba-dogu, euzkerearen berbalda ... deak eskatzen dauskun atzerapen apura ez ete dogu eroango?

MIKELA...

Portugalete'ko Euzko-Langille-Alkartasunari

Batasun goralgari eta anatasun oso -osuan eratu da, "Ibaizabal" ixeneko ibai-ontzijetako Euzko-Langiie-Alkartasun bazkuna. Bazkuna onetan ainbat euzkaldun gagoz batuta, eta euzkaldunok geure euzkereari juakanez bere bitartez zabaldu biar dogu izkuntza onek daben aberastasun eta garantzija.

Portugalete Euzkadi'ko erdeltzaletasun eredua da, gaur ainbat euzkotar zintzo dira uri aretan Euzkerea ikasten dagozanak, geuk Euzko-Langiie bazkuna onetakuok emon biar dautsagu eredu agirija. Otu gatezan geure batzaretan geure izkuntza erabiiten, eztakijenak ikasi bedi, eta geure artian Euzkerea erabili gura daben euzkotarak erestasun osuak emongo dautsaguz.

¡Zeinda guk erabili biar dogun bidia? Geure Euzko-Langiie-Alkartasunak eralduta daukana. Kistar amatasuna, Euzko-Langiie aldozko bide zuzena. Ugazaba ondoko eta ondo ulerturiko batasuna. Alkar-konponduteko gogo-zintzotasuna, eta Euzkadi geure aberi mate onen aberastasun gura ixana.

Ondo oldoztuta arazo gustijok gogo zintzoz eta kistar-zaletasunez edefto eruan giñakez aurera. Euzko - gogua beti gotik. Euzko-zaletasuna beti geure ondoren, eta alkaren ganako matetasuna badogu lan erez-ereza ixango dogu.

"Ibaizabal" ibai-ontzijetako e u z k o -langiiak bijotz onez. eta gixarte arazo-aldez gogoz jarautuen badogu, garaitza geugaz ixango dogu. Euzko-Aberi-aldez ekin da ekin, sarija berak emongo dausku-ta.

LENDAKARIJA.

Autuka-mautuka

BALPARDA'REN ITZAK ETA MITZAK

Balparda ilgo danian, Calle Iturino'k ilizki auxe ezariko dautso: "Abertzalien malu, edestijaren sagu ta Ateneo'ko gogaigari zana, ementxe datza".

Gixon au zer dan eztakixube. Bein gaste zalarik, ispiiu-aurera juan zan eta bere burubari auxe iñotsan:

—"Ene Gergori mate ori; gastia zara, aberatsa, buru-argija, adizkide onak daukozuz, neskatiiak mate zatube, jakintsuba zara. ¿Zer paltau ete yatzu zeuri? Bere burubari olantxe iñotsan, baña abots senduaz. Ixilka-mixilka bere amatxu gelaratu zan; semiaren tentelkerijak entzutian, didar-egin eutson:

—Zer paltau yatzun? ¡Ai, Ger gori-gergori, sentzuna, sentzuna paltau yatzu!"

"GACETA"-TXURI

"Jaungua'ren ixenian, Miren Neskutza'ren ixenian eta Deun gustijoi dirautzubet: "Bizkatar, abertzale gustijak erebolizionarijo gorijenak dirala".

Au eta aras geyago, be, idatzi ta esan eban izparingi dolor orek. Agintarijen kontra jagiten danak eztaukola Goikua'ren azkespenik. Eta orain itaunduten dautsogu izparingi ugerdo ori: Monarkikubetzaz zer diñozu? Or Bilbao'ko monarkikuai arma edo iskilu - piluak idoro dautsoez. Erebolizino ikeragarija gertuten ebiltzan.

Baña geure "Gaceta" - txuk orain eztauko tinta goririk. Monarkikuen kontra ezertxu eztau idatzi. Bare-iri lirain, atseginkor bat egin dau. ¡Abertzaliok ixan ba-giñan arma orein jaubiak!

JOSTUNA ENAZ!

Aldun-etxera kanpotar bat eldu zan. Eta ete-zañari itaundu eutson:

—Urlia or ete-dago?

—Eztago.

—Berendija, be, eztago ala?

—Ez, eztago. Kanpotik da.

Eta azkenez kanpotarak trajetea emonaz esan eutson ate zañari:

—Emen eztagozan-aren, be, eruan egijezu neure tarjetea, jostuna enazala jakin dagijen...

TXAPELA!

Euzko-Araudija aprobauko dan egunean, euzko-txapela buruban daula Lopez Goikoetxea alduna juango ei-da. Gixon oren abixenak ederak dira. Goikoetxea Iruretagoyena, Intxaurandieta eta abar Eta ori entzun ordukoxe Irazusta jaunak txapel edera abindu eutson. Lau euzko-abixenak, ikurdija eta azpijan: Gora Euzkadi!

Iño!, olako txapel bategatik Royo Villanova'k, be, bere autarkija emongo leuke. Gomariz jaunak, be, "Alzibar,,'i txapel bat eskatu eutson. Araudija aprobauko danian, aldun gustijak txapelakaz juango ei-dira...

ERREGE OREIK

España'ko erege kankaluba zanak ames andijak daukoz. Bere asaben aulkira bariz be etoriko litxakela adirazo dau. Baña "para sacrificarme por mi país". Ogei edo berogei milloi sakelean gordetia lango sakripizijorik eztago.

Azkenez: "...todos los españoles que amamos a España estamos de luto...". ¿Zenbat kostau ete-yakoz janzki baltzak? Bilbao'ko eregetarak eztagoz "de luto" na. Iskilubakin jolasten dira...

ERRIJETATIK

ERIGOITI

ABERI-EGUNA.—Aberi-Eguna bide zala eri onetan egin ziran jayak, iragari ziran lez egin ziran.

Jayok garantzi aundija ixan eben. Eta eurok ospatuten, oztetza aundija eldu zan.

Jayak jolastuteko ixan be ixaten dira-ta, emen be alantxe jolastu zan oztetzea, zar eta gaste, gustijak jolastu be.

ABERI-DOMUA. — Aberi-domubari ba polito erantzun eutsen, bakotxak beren eguneko alobertxuba Aberi-aldez emonda. Abertzale-egin biara betetia orixe da ixan be: abertzale-arazo gustijetarako gertu egotia.

IGANDEKO JAYAK.—Andoni deunaren jayak eriko jayak dirala-ta, jai ospatsubak egiteko asmua dogu. Ezpatadantzarijak be ixango doguzalkua diñue, ba.

Eta oneik, Mauro azkararen soñuban, dantzak-dantza egingo dabez.

Eta berau dala-ta, ozte aundija bertoratuko da, ezpatadantzarijak dantzan ikustia atsegingarija ixan be ixaten da -ta. Gastiak jolastu datezentzat be, euzko-jolas garbijak ixango dira.

Oretarako gure M a u r o txistulari trebiak, euzko-soñurik berezijenak joko dauz.

Geure zaindarijaren jayak ospatuteko, olangoxe jai garbijak eraldu biar dira eraldu be.

Eta abertzalia danak, enparauko itsu-soñu zikiñetan-eta, eleuke dantzaldi bat be egin biar.

JAYO'TAR EULOGI.

MENDARO

IRUKOITZ DONEA.—Mendaro-zabal baierakoak ospatu zuten euren Zaindari, Irukoitz Deuna'ren eguna. Elgoibar'ko txistularik an izan ziraden. Meza nagosian itzaldia egin zien Aita Kaputxiño batek. Ederki egin ere. Gero aureskua gure lagun Zabaleta'tar Simon eta Gotzon'ek. Astelenez ere eromeria.

NASKALDIA. — Aretxabaleta't i k etorita agurtu ditugu Olazabal'dar Anastasi ta Domeka. Gure artean da apaizgai Garitaonandia'tar G e r g o r i. Uren arte.

ARNO-MENDI.

Uara.—Ixen-ordeko polita artu dezu. Gaur idazlan au oso laburtu dizut, beste guziai bezela. Tokirik eztegu, agintariai eskatu diegu ta laster izango degun-aren. Artio azketsi.—L.

GALDAKANO

AUZO-JAYAK.—Gomuzio'ko auzonekuak jai ospetsu ta euzkotarak egin ebezan ila onen 11'garenian. Benetako abertzaliak ortxe doguz.

JAKINGARIJA.—Eskerak eriko agintari ta burukidiai, aurerantzean dakano'tik Bilbao'ra deitzia ... ñez, berogeta bost zentimo ixango ... Jakingari ta pozkari.

ERIKO EUZKO - BATZOKIJA. Lenago, be, onetzaz idatzi dot, ... argitaldu etzalako, bariro ekingo ... tsot, neure gardiz, ba, garantzitsu ... dijenetarikua da. Biar-biarekua ... giñuan, gure eriko euzko-batzokiak ... kirol-bazkun bat antolatzia. Eta ... oretan bildu biar litxakez, ba, ... tar kiroltzale gustijak.

Gure eretxi edo gardiz biar-bidea ... da aldi onetan euzko-kiroltzaletasuna ... na egitia, kiroltzaletasunaren ... beste euzkotasunik eztauken bazkun ... baztertuteko. Euzko-gaste asko ... bazkun oretan. Eta euzko-ixaten ... arerijuak kalte baño eztautse ... Zer diñue arazo onetzaz Galdakano ... Batzokijak? Oneri ekingo dau ... asmo au aurera eruan biarekua ...

BASARIJA.

Uara. — Asmo ori, Galdakano'ko ... -eze beste toki gustijetan, be, ... biarlitxake. Emen Bilbao'ko Euzko ... -Gastedijak asmo bikañak daukoz ... dala-ta Kirol - Bazkuna'k egin ... Euzko-gaste bat eztaikegu ikusi ... zetariko bazkunetan geure-geurik ... ranetan baño. Edefto egin dozu ... sakiña" adizkide, orkual del-egin ... Uste dogu baño garantzi geyago ... ko asmo orek.—L.

Euskeltzaleen Orratza
Saltzalientzat
Lko. BAT
Saneurri berezia
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia